

Garuneko Istripu Baskularra (GIBAS)

GIBAS, beste modu batzuetara ere izendatzen da: apoplexia atakea, garun-enbolia, garun-infartua, garun-hemorragia edo iktusa. Garunaren zati bati bat-batean odola heltzen ez zaionean gertatzen den lesioa da. Odol-hodi baten butxaketa (garun-iskemia) edo odol-hodia apurtzen denean (garun-hemorragia) gertatzen da. Minutu batzuk irauten badu eta berez osatzen bada garuneko istripu iragankorra (GII) deituko zaio.

Nola agertzen da GIBASa?

Modubizkoredobat-batekoansentikortasuna galtzen denean edo indar ahulezia dagoenean besoan, aurpegian, zangoan edota gorputz erdian. Kontzientziaren gutxitzea edo burunahasketa. Begi batean edo bietan ikusmena galtzerakoan. Hitz egiteko zailtasuna dagoenean. Buruko min handia eta arrazoia zein den ezin dugunean jakin.

Halako sintomarik izanez gero **URGENTZIAZKOA DA ETA EZIN DA ITXARON**, mediku baten laguntza behar da.

LARRIALDIETAKO TELEFONOA

061/112

Nola/Zelan aurea hartu GIBASari?

Honako honen kontrol ona izan behar da:

Diabetesa eta arteria-presioa: dieta egokia, pisuaren kontrola eta ariketa eginez. Batzuetan botikak beharrezkoak dira.

Tabakoa: ERREATZEARI UTZI BEHAR ZAIO!
Laguntza eskatu diezaiokezu zure sendagile edo erizainari.



Bihotzeko gaixotasun batzuk lagundu dezakete GIBASaren agerpenean. Familia-medikuak tratamendu egokiena adieraziko dio gaixoari.

Zein da bere pronostikoa?

Gaitasun-gabeziak edo ondorioak eduki ditzake:

- Gorputz zati baten paralisia.
- Arazoak ikasketetan, kontzientzian, arretan, memorian eta adimenean.
- Arazoak hizketan. Emozio arazoak.
- Mina.

Errehabilitazio onak ondorioak arindu ditzake. Lehen 3 orduetan GIBASa ospitalean atendituz gero pronostikoa hobetu daiteke, kasu batzuetan oztopoa desegin daitekeelako momentuko tratamenduaren bidez.

GIBASa izan ondoren prebentzio-tratamendua eduki behar da.

Kontrolak ondo daude,
botikak hartzeaz
gogoratzen zara?

